

Esp. Zkia.- KE-2023-014

E.E.- 2023-00316

297/2023 DEKRETU ZENBAKIA:

Larrabetzuko Udaletxean, 2023ko bagilaren 22an.

OINARRIA: 2023ko bagilaren 2an eta sarrera erregistro nagusiko E202302185 zenbakiagaz, Intxurreta Jai Batzordeak Larrabetzuko Udaleko 2023ko Aurrekontu Orokorrean modu nominatiboan zehaztutako diru-laguntzaren eskaria egin zuen. Diru-laguntzaren zenbateako 35.000,00 eurokoa da.

OINARRIA: 2023ko urtarrilaren 30ean Bizkaiko Aldizkari Ofizialean 2023 ekitaldi ekonomikorako Udal aurrekontuaren behin betiko onarpena argitaratu zen eta horretan Intxurreta Jai Batzordea Elkarteari diru-laguntza nominatiboa agertzen da 338.48002 aurrekontu partidan. Partida horretan 35.000,00 euroko kreditua dago.

Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Legearen 22 eta 28. artikuluetan, Lege hori garatzen duen araudia onartu zuen 887/2006 Errege Dekretuaren 65. artikuluan eta Toki Araubideko Oinarriak arautzen dauzan apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 21.1 artikuluan zehaztutakoaren arabera, honako hau EBATZI DOT:

LEHENENGOA.- Intxurreta Jai Batzordea Elkarteari 338.48002 aurrekontu partidaren pentsuan 35.000,00 euroko diru-laguntza ematea, ebazpen honetan zehaztutakoari jarraituz:

- Diru-laguntzaren objektua: Hurrengo udal jaiak antolatzea: Andra Mari (abuztuak 13, 14, 15 eta 16), Goikoeleixaldeko jaiak (abuztuak 30 eta 31 eta irailak 1).
- Aurrekontu kreditua: 35.000,00 euro, udal aurrekontuko 338.48002 aurrekontu partidaren pentsuetan.
- Xede berdinarekin lortzen diren diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edota baliabideekin bateragarria izango da, horiek bestelako Administrazio Publikoetatik datozela edo beste erakunde publiko edo pribatutik datozela kontuan izan gabe. Justifikazioarekin batera bestelako diru-sarrerak lortu izanaren inguruko akreditazioa egin behar da.
- Diru-laguntza ebazpen hau ematearekin %70a ordainduko da eta geratzen den %30a justifikazioa egin eta gero ordainduko da.
- Diru-laguntza justifikatzeko epea 2024ko zezeilaren 28an bukatu egiten da. Justifikazioa lege aplikagarriak zehaztutako moduan egigo da.

BIGARRENA.- Ebazpen honen berri udal diru-zaintzari eman diru-laguntzaren ordainketa egin dezan.

HIRUGARRENA.- Dekretu hau interesdunari jakinarazoko jako.

LAUGARRENA.- Udalbatzako Osoko Bilkureak egingo dauan hurrengo bileran Dekretu honen barri emongo da.

Iñigo Gaztelu Bilbao
Alkatea

Nire aurrean,
Behin-behineko Idazkaria